

Zuhaitzen eraztunetan nola

**Maidar Iantzi
Goienetxe**

Zuhaitz-enborraren ebakiduran agertzen diren eraztunetan nola, hala ezagutzen da adina eta historia gure azalean. Eraztun horiek dituzten arbolek beren bizitza idatzita daramatela erran daiteke eta dendrokronologia izena du marka horiek historiako liburuen antzera irakurtzen dituen zientziak. Baina beti bezala, natura harago doa, ezin dugu harrapatu, eta badira, eraztunik ez dutelako, zientzia honen ikerketa-eremutik kanpo gelditzen diren zuhaitzak. Pertsonokin igualtsu pasatzen da. Halere, oro-

korrean, adinarekin guritasuna galdu eta esperientzia irabazten da.

Orduak zenbatuz hasten gara, egunak gero, “hilabeteбететзеak” ospatzen ditugu lehenengo urteбететзера ailegatzeko gogoz. Ziztu bizian hasten da gure garapena: zentzumen guztiekin jaten dugu bizitza. Hasiera horretan, ez dugu perspektibarik eta dena da “orain”. Ez dakigu zer den esperoan egotea, eta iragana, oroitzeko, konparatzeko, ikasteko balio diguna egunez egun eraikitzen goaz. Bitxia da urteekin nola aldatzen zaigun denboraren

nozioa. Horregatik ere interesgarria iruditzen zait adin ezberdinen nahasketa, elkarrengandik zer ikasi aunitz dugulako.

Nire eraztunek zer erakutsi didaten? Oraindik pila bat dut irakurtzeko, baina oraintxe bertan, bi ikasgai azpimarratuko nituzke: ez utzi denbora pasatzen, ez gaizki egon gero ongi egoteko itxaropenez, maitatu eta errespetatu zure burua beti; eta, horrekin lotuta, nahi duzuna egiten saiatu, muga eta betebeharrak batzuen barrenean baina aske garelako beti. •

Normalizatu... artalde bihurtu arte

**Xabier Mikel
Errekondo**

Errepikatzearen poderioz dizkigute iltzatzen garunean beren nahieran beren nahiak, edozer di-relarik, ez lotsarik ez eskrupulurik barik, panpina gorrotagarria bihurtzeraino medio publiko nagusia, EITB.

Lehendakariaren, Barne sailburuaren edo Osasun sailburuaren ahotik: «Hau horrela da eta badakizu, nik horrela diodalako, zer egin behar duzun eta, beraz, zurea da ardura». Errepikatzearen poderioz normalizatu digute mezua: etxean geratu, distantzia mantendu, musukoa jarri, berdea-horia-laranja-gorria zara, ibili argi!

Argi dago birusak kalte ugari eta anitzak eragiten dituela, baina herritarrak irainduz eta mehatxatuz (zeresanik ez gaztaro mingotsa bizi dutenak), egurra emanaz giroa berotu eta erreaz, nago Jaurlearitzak propio duela kea sortzen kudeaketa negargarria ezkutatzeko. Politikaren jokaldia da bere mezua aukera bakartzat azaltzea eta eztabaidarako tarterik ez ematea. Horrela, Jaurlearitzatik justifikatzen ditu egindakoak eta egin gabekoak. Horretarako du mezua etengabe errepikatzen normalizatu arte gu konturatu ere egin gabe, eta bide batez mesfidantzak alboratu.

Jaurlearitzak ez daki herritarrak aintzat hartzen. Hauteskunde programan jasoa dagoenari erreferendum kategoria ematen dio, eta kitto. Bada, guztiok bagara izurrite arazoaren parte eta soluzioan guztion ahalegina bada beharrezko, behingoz aintzat har beza jendartearen heziketatik, laga azotea eta heldu arbelari. Ze, azken asteetan hedabideetan mezu autoritarioa aurpegi atseginez maskaratzeko saiatu arren, oker doa artalde bihurtzeko enpeinu egoskorrekin.

Hortik harat ausartzen dena kriminalizatua, herritar salatarien jopuntuan eta poliziak kolpatua izango da. •